

Mateo efektua



JUAN MARI ARREGI

Kapitalismoaren “birfundazioaz” liburu berriak sortzen diren bitartean, kapitalismo horren kudeatzaileek 2019 urteak eman diena azaldu digute. Irabazi handiak izan dituzte enpresentzat eta, batez ere, zuzendaritzako buruentzat; irabazi globalak murriztu badira ere, haiek jarraitu dute soldata eta osagarri eskandalagarriak poltsikotzen.

Ibex espainiar indizeko 35 enpresa kotizatuek 507.822 milioi euroko salmentak izan dituzte eta 27.054 milioi irabazi, aurreko urtean baino %35,9 gutxiago. Enpresa horietako zuzendaritzako kideek 696 milioi euro jaso dituzte soldata eta osagarrien bidez, horietatik 323 milioi administrazio kontseiluko poltsikora joan dira –iaz baino %7,75 gehiago– eta beste 372,7 milioi goi zuzendaritzakoenera. Madrilgo burtsako etengabeko merkatuko 79 enpresen irabaziak gehituz gero, 2019ko mozkin osoa –EAEko zenbait enpresa barne– 30.205 milioioika da.

Enpresa handietako presidente batzuek kobratzen dutenaren adibide bi: 2019an, Iberdrolako Jose Ignacio Sánchez Galánek 10,43 milioi euro jaso zituen, eta Santander Taldeko Ana Botínnek 9,95 milioi. Finantza-eskandalu hori handitzen ari den bitartean, gutxieneko soldata 950 eurokoa da, gutxieneko pensioek ez dituzte 650 euro gainditzen, eta langabezia, prekarietatea eta gizarte-bazterketa areagotzen ari dira. Hori da sistema kapitalistak sortzen duena, “Mateo efektua” deritzona: “Gehien duenari, gehiago emango zaio, eta gutxien duenari, kendu egingo zaio, gehien duenari emateko”.

Kapitalismoa birsortzea ez da sistema berri bat sortzea, baizik eta “merkatuko gehiegikeriak” ezabatzeko formula kosmetikoak bilatzea, bizirik iraun eta iraultza sozial erradikalenak saihesteko. Kapitalismoa beti izango da injustizia, desberdintasun eta bazterketa sozialaren sortzaile. ●



BIZI

Trantsizio ekologikoak egon behar du kanpainan

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Zaldibargo zabortegia bi langile jan dituen munstro kutsakor bat baino askoz gehiago da. Zaldibargo zabortegia mundu bat da. Zaldibargo zabortegia hautu batzuen emaitza da. Bizitza zentroan eman beharrean, zaborra –hots, etenik gabeko kontsumoa– zentroan ematen duen eredu da. Sistema bat ez da ez lurretik loratzen, ez eta zerutik erortzen ere. Sistema bat erabakitzen da, gauzatzen da eta akuilatzen da. Eta botere politikoen lekua ez da ttipia horretan. Erabaki, gauzatze zein akuilatze horien berri jakiten ari gara poliki-poliki euskarazko komunikabide batzuek bideratu ikerketa kazetaritzari esker.

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak eginen dira apirilaren 5ean. Ipar Euskal Herriko herriko etxe eta elkargorakoak berriz martxoaren 15 eta 22an. Lapurdi, Behe Nafarroa zein Zuberoan bozkatzeko dugunok zehazki badakigu zein hautagaik duen trantsizio ekologikorako konpromisoa hartu. Eta hori bezain garrantzitsua: badakigu zein hautagaik ez duen horren aldeko engaiamendua hartu. Gauzatu beharreko neurri batzuk dituzte hitzen giblean. Besteak beste: “Hondakinen murrizketaren eta ekonomia zirkularraren alde egitea” eta “klima aldaketari aurre egiteko herri mailako plan bat” gauzatzea. Izenpetutakoa gauzatzen ez duena presionatzeko karta gehiago ukanen ditugu esku artean, eta nola ez izenpetu ez dutenak akuilatze ere. Herri presiorik gabe nekez bideratuko delako trantsizio ekologikoa –eta horretarako beharrezkoa den trantsizio ekonomikoa–. Bizi! talde ekologista dabil hautagaiak engaiamenduak hartzera bultzatze lanean.

Interesgarria lirateke ikustea EAEko hautagaietan zeinek izenpetuko lukeen *Metamorfosi ekologikoaren aldeko ituna* –eta zeinek ez lukeen izenpetuko–. Dena dela, ez da misterio handi bat: zabortegiak eta erraustegiak trantsizio ekologikoaren antonimo dira. Interesgarria litzateke entzutea EAEko hautagaitza bakoitzak ere zerekin mamitzen duen trantsizio ekologikoaren oskolaren barnekoa. Gaiak egon behar du plaza publikoan. Gaia egon behar da kanpainan. Oihana gordetzen duen zuhaitza delako Zaldibarrekkoa. Gero, bakoitzak hauta dezala, arazoan gelditu nahi duen ala aterabideen bidea hartu nahi duen. ●